

Ernesto Gascok oinezkoentzako Kontxa pasealekua proposatzen du

“BERRIRO PERTSONENTZAKO, OINEZKOENTZAKO HIRI BATEN ALDE LAN EGIN BEHAR DUGU”



Ernesto Gasco Donostiako alkatezarako hautagai sozialistak adierazi du “hiria pertsonentzako eta oinezkoentzako egin behar dela. Azken lau urte hauetan hiria oinezkoentzako egokitzeko gaian ez dugu asko hobetu, eta herritarrek disfrutatzen duten espazio publiko gehiago egiten jarraitu behar dugula uste dugu”.

Clara Campoamor plazan egindako ekitaldi batean, bere hautagai-zerrendako kideak aldamenean zituela, Ernesto Gascok adierazi du “hiriaren sinboloetako bat Kontxa pasealekua dela, donostiarrek eta bisitariak gehien maite duten lekuetako bat. Guk pasealekua oinezkoentzako egitea proposatzen dugu”.

Donostiako Sozialistek defendatzen duten proposamenean, oinezkoentzako tartea Antiguoko tuneletik Mirakontxaren hasierara luzatuko litzateke. “Horren bitartez 18.000 metro koadro baino gehiagoko azalera lortzen dugu, berdeguneekin eta tamarindoekin, espaloitik argi bereizitako bidegorri batekin, pasealeku batekin eta bankutan eserita lasai egoteko guneekin. Itsasorako begiratoki berri bat leku pribilegiatu batean”, adierazi du Gascok.



Alkatetzarako hautagai sozialistak azpimarratu du bere proposamena ez doala ibilgailuak bertatik iragatearen aurka. "Batzuek pasealekua zabaltzeko zirkulazio-errei bat kentzea proposatzen duten bitartean, guk gaur egun dauden hiru erriak lurperatzea proposatzen dugu. Horri esker, ibilgailuek lasai zirkulatzea eta garraio publikoak ondo funtzionatzea ziurtatzen dugu. Garraio publikoak bere errei bereizia izaten jarraituko luke lurpean, ez bakarrik hiri barruko garraio publikoaren onurarako baita hiriartekoaren onurarako ere".



DONOSTIARRA,
COMO TÚ ZU BEZALA



Ernesto Gasco
CANDIDATO A ALCALDE / ALKATEGAI

SAN SEBA **DONO STIA N**